

JARDUERA ➤ [Klikatu hemen](#) hurrengo orrietan irakurriko duzunari buruzko laburpenaren bideoa ikusteko.

K.a. 753.urtean, Italiako penintsularen erdialdean bizi zen herri batek **Erroma** hiria sortu zuen. Hasieran, txikia zen, baina K.a. VI.mendetik aurrera, lurralde asko konkistatu zituzten.

Italiako penintsula okupatu ondoren, erromatarrek Europan, Asian eta Afrikan zehar hedatu ziren, Mediterraneo itsasoaren inguruko eremuetan, eta inperio handi bat sortu zuten. Hori lortzeko, herri askoren aurka egin behar izan zuten, eta Erromako **armada indartsuari** esker garaitu zituzten.

Konkistatutako herriek erromatar herriaren **ezaugarri kulturalak** (hizkuntza, txanpona eta bizimodua) bereganatzen zituzten; hots **erromanizazioa** gertatzen zen.



Hispaniaren konkista

Kartagotarren eta **erromatarren** artean zenbait guda (guda punikoak) izan ziren, Mediterraneo itsasoko nagusitasunagatik. Gutxi gora behera 200 urte gudetan egon ostean, K. a. 218. urtean, **erromatarrek** kartagotarrak **garaitu** zituzten eta Iberiar penintsula osoa konkistatzeari ekin zioten. Lehendabizi, Mediterraneoko kostaldea; gero, barnealdea eta azkenik iparraldeko lurraldeak konkistatu zituzten. K.a. 19.mendean iberiar penintsula osoa konkistatu zuten eta **Hispania** izena jarri zioten.

Nola antolatu zen Hispania?

Erromatarrek Hispaniako lurraldea **probintzian** antolatu zuten, eta **gobernadore** bat izendatu zuten probintzia bakoitzeko buru izateko.



Denborarekin hispaniarrek erromatar ohiturak eta hizkuntza bereganatu zituzten; hots, **erromanizazioa** gertatu zen. Erromanizazioan erromatarrek haien **ezaugarri kulturalak** ezarri zituzten:

a) **Eraikuntza-lanak**: zubiak, akueduktuak, anfiteatroak, antzokiak, zirkuak, termak eta tenpluak



Zubiak



Akueduktuak



Anfiteatroak



Antzokiak



Zirkuak



Termak



Tenpluak

Zubiak; **akueduktuak**, ura hirira helarazteko. **Anfiteatroak**, gladiadoreen arteko borroketarako; **antzokiak**, komediak eta tragediak antzezteko; **zirkuak**, zaldi-lasterketetarako; **termak**, bainuak hartzeko; eta **tenpluak**, jainko-jainkosak gurtzeko.

b) **Komunikazio-bideak**: Probintzia bakoitzean, **hiriak** sortu zituzten. Hiriak **galtzada-sare** (harrizko bideak) baten bidez komunikatuta zeuden.



c) **Hizkuntza**: Erromatarrek beren hizkuntza zabaldu zuten Hispanian: **latina**. Apurka-apurka konkistaren aurretik Iberiar penintsulan hitz egiten ziren hizkuntzak desagertuz joan ziren, latinak ordezkatuta.

Gaur egun hitz egiten ditugun hizkuntza asko latinetik eratorriak dira, adibidez gaztelania, galiziera, portugesa, katalana eta frantsesa. Erromatarren aurreko hizkuntzetatik batek bakarrik iraun zuen: euskarak.

d) **Erligioa**: Erromatarrek **politeistak** ziren; hots, jainko eta jainkosa askorengan sinesten zuten. Jainko jainkosa nagusiak Jupiter, Juno eta Minerva ziren, eta **tenpluetan** gurtzen zituzten.

K.o. I. mendean, Jesus Nazaretekoak sortutako erlijio berri bat sortu zen: **kristautasuna**.

Jesusek hau irakasten zien bere jarraitzaileei: jainko bakar bat dagoela, eta pertsona guztiak berdinak direla haren aurrean.



1. Erromatar tenplua

Denboraren joanarekin, kristautasuna Erromatar Inperio osoko erlijio bilakatu zen.

e) **Zuzenbidea**: erromatarrek pertsonen arteko bizikidetzaren arautzeko zenbait arau ezarri zituzten. Arau horiek **erromatar zuzenbidea** delakoa osatzen zuten, eta horietako batzuk gaur egun ere aplikatzen dira.

Erromatarrek **6 mendetan** bizi izan ziren penintsulan, **herri germaniarrek** konkistatu zuten arte (476.urtea).